

BEKA FERRO 2024 IKERTZAILE GAZTEENTZAT

Helburua:

Bekaren xedea da ikertzaile gazteen prestakuntza osatzea onkologiaren arloan eta pazienteei esparru horretan egin diren aurrerapen zientifikoaren transmisio arina sustatzea. Horretarako, bi proiektu zientifiko aitortuko da, mota horretako ikerketan parte hartzen duten Espainiako erakundeetan lan egiten duten profesional berriek aurkeztua.

Eskatzaileak/ikertzaile nagusiaren baldintzak:

- Ikertzaile nagusiak UPV/EHUrekin funtzionario edo kontratu harremana duela egiaztatu beharko du proiektua gauzatzeko epean.
- Doktore titulua 2009ko urtarrilaren 1etik 2019ko abenduaren 31ra bitartean lortu izana, eta, horretarako, PhD doktorego tesia edo baliokidea irakurri eta gainditu den eguna hartuko da aintzat. Hautagaiek baldintza hori betetzen duen titulu bat baino gehiago dutenean, lortutako lehenengoa hartuko da aintzat.
- Garatzeko edo finkatzeko bidean dauden programak / taldeak / ikertaldeak zuzentzea. Deialdi honen esparruan, garatzeko bidean dauden taldeak izango dira azken hiru urteetan I+G+b arloko lehenengo proiektu baterako norgehiagoka bidezko finantzaketa lortu duten eta duela gutxi sortu diren ikertaldeak, edo proiektua bermatzen duen erakundearen barruan duela gutxi sortu edo finkatu direnak.
- Beren lanak ikerketa onkologiko translazionalean oinarritu izana, eta aplikazio klinikoaren osagai handia edukitzea.
- Esparru biosanitarioan aplikatzeko potentziala duen proiektu zientifikoa aurkeztea.
- Hautagaiek ezin dute proposamen bat baino gehiago aurkeztu.

Laguntzaren ezaugarriak:

80.000 €-ko beka, zeina ikerketa onkologiko translazionalaren proiekturik onenari emango zaion, ebazpenaren datatik aurrera. Ikerketa proiektuak ideia originaletan oinarrituta egon behar dira.

Proposamen hori garatzeko aurreikusitako denbora epea 2 urtekoa da (gehienez).

Beka kopurua: 2

Eskabide prozesuak bi fase ditu.

➤ 1. FASEA - Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- **Ikerketa proiektuaren memoria ingelesez**, deialdiaren txantiloari jarraituz (ez egin 3 orrialde baino gehiago).
- **Ikertzaile nagusiaren CVa**, deialdiaren txantiloari jarraituz (ez egin 3 orrialde baino gehiago).

Epea:

2022ko otsailaren 18ra arte

Hautatutako proiektuak hurrengo fasera igaroko dira.

➤ 2. FASEA - Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- **Ikerketa proiektuaren memoria** ingelesez, deialdiaren txantiloari luzatuari jarraituz.
- **Ikertzaile nagusiaren CVa**, deialdiaren txantiloari jarraituz (ez egin 3 orrialde baino gehiago).

Epea:

2024ko apirilaren 2ra arte

Aurkezpena:

Eskabide guztiak elektronikoki bidali behar dira, PDF formatuan, posta elektronikoaren bidez honako helbide honetara: beca@fero.org

Informazio gehiago:

FERO fundazioaren kontaktua: beca@fero.org